

Nork hitz egiten du, gaur egun, arteaz?

Artearen irakaskuntzari buruzko eztabaida antolatzen genbiltzanean, alde batetik, Artelekuren “heziketa memoria” jaso nahi genuen –“rolling stone” moduan “bizirik” genuena– eta, bestetik, artearen (musika, arkitektura...) egungo irakaskuntzari buruzko eztabaida zabaldu nahi genuen. Eta, horretarako, hezkuntza arloan (bai hezkuntza arautuan, bai hezkuntza ez-arautuan), eskarmentua duten pertsonen hitza behar genuen. Horretarako, Artelekurekin edota *Zehar*-ekin lankidetzan ibiliak diren eskarmentu handiko pertsonengana jotzea zen egokiena.

Hezkuntza arloko zenbait praktikatatik eta esperientziatik abiatuta, eta jakinda gizarte garaikidean heziketak garrantzia handia duela, deialdi bat egitea erabaki genuen eta, horrekin batera, zenbait galdera plazaratzea deliberatu genuen; hartara, arte irakaskuntzan diharduten eragileek lantzen dituzten ideiak ezagutarazten laguntzeko:

1. Zein neurritan eragin dute azken hamarkadetako aldaketa sozio-ekonomikoen, politikoen eta teknologikoen ikusizko arteen hezkuntzan?
2. Onartua bide dago gizartearen ikus-entzunezkoak aldaketa eragin duela ikusizko arteen hezkuntzan eta azterketa kulturalak izan direla azken urteetan hezkuntza proposamen adostuenak, baina nola uztartu ikasketa teorikoa eta gure testuingurua, alegia, batzuek “praktika kokatua” deitua?
3. Nola antolatzen dituzu zure heziketa jardunean ezagutzaren produkzioa eta esperientzia partekatua?